



TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan xedatutakoarekin bat etorriz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA

3. artikulua

Honakoek osatuko dute zerga gaia:

1.- Bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titularitatea, edozein mota eta kategoriatakoa dela ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2.- Zirkulaziorako ibilgailu egokia da dagokion erregistro publikoetan matrikulatu den eta horietan bajarik eman ez duen ibilgailua. Zerga honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira aldi baterako baimena eta matrikula turistikoa duten ibilgailuak.

3.- Honako hauei ez zaie ezarriko zerga:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuei, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena ematen bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastatutako atoi eta erdi atoei, baldin eta haien karga erabilgarria ez bada 750 kilogramo baino gehiagokoa.



III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua

1.- Honakoak salbuetsiko dira zergatik:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuaren funtzionario kreditatuak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari bai neurriari dagokionez ere.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten Nazioarteko Erakundearen ibilgailuak, baita bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko ambulanziazkiak eta gainerako ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, ezinduen izenean matrikulatutakoak.

Era berean, zergaren ordainketatik salbuetsiko dira 14 zaldi-potentzia fiskala baino gutxiago duten, elbarrituen izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai elbarriek gidatutako ibilgailuen kasuan bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikagarri izango onuradun diren subjektu pasiboari ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengoak hartuko dira elbarritzat:

a') Elbarritasun maila %33koa edo handiagoa eta %65koa baino txikiagoa duten pertsonak, eta mugikortasun gabeziak dituztenak. Kasu hauek Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren, III. eranskineko baremoan, minusbaliotasun maila onartzeko, aitortzeko edo kalifikatzeko prozedura ezartzen duena, A, B eta C letrek aipatzen dituzten egoeran baldin badaude ,



edo baremo horretako D, E, F, G edo H letretan 7 edo puntu gehiago lortzen badituzte. hartuko dira kontuan.

b') Minusbaliotasun maila % 65koa edo handiagoa duten pertsonak.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiriko garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Ikuskatze Txartela duten traktore, atoi, erdi atoi eta makinak.

2.- Artikulu honetako 1. paragrafoko e) eta g) idatz-zatietan aipatzen diren salbuespenak baliatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren arrazoia adierazi beharko dituzte. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

1. paragrafoko e) idatz-zatiko bigarren paragrafoan xedatutako salbuespenari dagokionez, interesdunak dagokion organoak emandako ziurtagiria, elbarritasuna egiaztatzen duena, aurkeztu eta ibilgailuaren xedea justifikatu beharko du ezarpenezko udalean aitortpen baten bidez.

3.- Zerga sortzen denetik aurrera aplikatuko dira salbuespenak.

4.- Hobariak:

a) Izaera Orokorreko Familia Ugariako kide bati, indarrean dagoen legediaren arabera, %75eko hobaria aplikatuko zaio bost toki edo gehiago dituen turismo ibilgailu bateko titularra den kasuetan, ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio hobari hau. Izaera Bereziko Familia Ugarien kasuetan hobaria %90ekoa izanda da.

Hobaria aplikatu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da familiako kide guztiak Barrundian erroldaturik egotea.

b) Honako baldintzetako bat betetzen dituzten ibilgailuek %75eko hobaria izango dute kuotan:

- a) Motor elektrikoa duten ibilgailuak zen ibilgailu hibridoak (elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa). Hobaria aplikatu ahal izateko fabrikari homologatuak izan beharko dira, eta ibilgailuaren ezaugarrietara egokitutako gailu katalizatzaileak izan beharko dituzte, isurtzekutsagarriak murriztu daitezten.
- b) Fabrikako homologazioaren arabera, gasa izatea erregaia eta ibilgailuaren ezaugarrietara egokitutako gailu katalizatzaileak izatea, isurtze kutsagarriak murriztu daitezten.



Salbuespenek eskatu eta hurrengo zergalditik aurrera izango dute eragina, baldin eta, horiek jasotzeko, baldintzak bete eta udalari horiek betetzen direla egiaztatzen bazaizkio aldez aurretik.

Hobariak kuotaren % 100aren parekoak izan ahal dira.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua haien izenean edukiz gero.

V. KUOTA

6. artikulua

1.- Tarifen taularen arabera eskatuko da zerga. Eranskinean jaso da taula hori.

2.- Ibilgailu-mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; horretaz gain, honako arauok ere kontuan izan beharko dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da turismo-ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen denean, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, honakoetan izan ezik:

Lehena.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusari dagokion zerga ordainduko du.

Bigarrena.- Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindrada-edukieraren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, arrastatze-potentzia daramanak eta atoi eta erdi-atoi arrastatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotore, atoi eta erdi atoi kasuan, duten edukiera dela eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako egokitzen joko dira dagokion egiaztagiria Industria Ordezkaritzak ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, zirkulatzen dauden unetik beretik.



e) Bide publikoetatik trakzio mekanikozko beste ibilgailu batzuek eraman edo arrastatu beharrik gabe ibil daitezkeen makina autopropulstakuek, traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko dute zerga.

VI. EZARPENALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua

1.- Ezarpenaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailuen lehen eskuratze edo baja kasuan salbu. Horrelakoetan, zergaldia eskuratze hori gertatzean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan baja ematean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga ezarpenaldiaren lehen egunean sortuko da.

3.- Ibilgailuren bat lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko eskuratze-egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan, edo ibilgailuaren baja ematen den egunaren arteko aldiari dagokiona, hala badagokio.

4.- Ibilgailuaren baja ematen denean, urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan ibilgailuaren baja ematen den egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan zergaren kuota kalkulatzeko.

VII. KUDEAKETA

8. artikulua

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta, halaber, zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den herriko Udalari dagokio.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.



11. artikulua

Zerga ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da, ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. artikulua

Matrikulazio berririk bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketarik bada, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren 30 egun balioduneko epean, interesdunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte Udal Administrazioan, Zergaren matrikulan sartzeko:

- a) gidabaimena.
- b) ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK.

13. artikulua

1.- Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, gidatzeko gaitasun egiaztagiria eskatzen dutenek, aurretik zerga ordaindu dutela kreditatu beharko dute.

2.- Ibilgailuen titularrek, ibilgailuak eraberritu dituztela adierazten dutenean Trafiko Buruzagitzan, baldin Zergaren ondorioetarako sailkapena aldatu bada, edota eskualdaketa kasuan, ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den egoitza aldatzean edota ibilgailu horien baja ematen bada, Trafiko Buruzagitzan aldeztu aurretik kreditatu beharko da zerga kobratzean aurkeztutako azken ziurtagiria. Hala ere, kudeaketa eta ikuskatze bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako eta kobratzean aurkeztutako eta iraungi gabeko kontzeptuagatik zor guztiak ordaintzea eskatu ahalko da. Egiaztatzeko betebeharrak hori salbuetsiko da hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko baje kasuan.

3.- Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, aldeztu aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ibilgailu batzuk salbuetsita daude Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergatik, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren Foru Arauko (44/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa) 2.1.d) artikuluaurreko idazketa aplikatuta. Baldin ibilgailu horiek, Foru Arau hau indarrean sartu aurretik, Foru Arau honetan emandako idazketa berriari jarraituz, salbuespenerako



zehaztutako betekizunak betetzen ez badituzte, arau horren aurreko idazketan xedatutako salbuespena aplikatzeko eskubidea izaten jarraituko dute, ibilgailuak arau horretan salbuespen horretarako jarritako baldintzak betetzen dituen bitartean.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau eta eranskina Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.



**TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN
DUEN ORDENANTZA FISKALA**

ERANSKINA

TARIFA

Potentzia eta ibilgailu mota	Kuota (eurotan)
A) Turismoak:	
8 zerga zaldi baino gutxiagokoak	16,50
8 eta 11,99 zerga zaldi bitartekoak	44,50
12 eta 15,99 zerga zaldi bitartekoak	96,90
16 eta 19,99 zerga zaldi bitartekoak	123,00
20 zerga zaldi baino gehiagokoak	156,50
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiagokoak	108,90
21 eta 50 plaza bitartekoak	155,00
50 plazatik gorakoak	193,80
C) Kamioiak:	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	55,30
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	108,80
2.999 kg eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	155,10
9.999 Kg baino karga erabilgarri handiagoa dutenak	193,80
D) Traktoreak:	
16 zerga zaldi baino gutxiagokoak	23,10
16 eta 25 zerga zaldi bitartekoak	36,30
25 zerga zaldi baino gehiagokoak	108,80
E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak:	
750 eta 1.000 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	25,40
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	36,30
2.999 Kg baino karga erabilgarri handiagoa dutenak	108,80
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	5,80
125 cm3 edo gutxiagoko motozikletak	5,80
125 eta 250 cm3 bitarteko motozikletak	9,90
250 eta 500 cm3 bitarteko motozikletak	19,80
500 eta 1.000 cm3 bitarteko motozikletak	39,70
1000 cm3 baino gehiagoko motozikletak	79,20

Ozaetan, 2019ko urriaren 10ean.

ALKATEA,

Igor Medina Isasa





DILIGENTZIA.- Udala honek, 2019ko urriaren 10ean burututako bilkuran, Trakzio mekanikazko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala onartu zuen eta ALHAOean (2019ko urriaren 18ko 121 zenbakia) eta Udaletxeko iragarki taulan jendaurrean 30 lan-egunez argitaratu.

Ozaetan, 2019ko abenduaren 3an

O.E.
ALKATEA



IDAZKARIA

DILIGENTZIA.- Trakzio mekanikazko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala behin- betiko onartua izan zen eta ALHAOko 2019ko abenduaren 13ko 143. zenbakiko alean eta Udaletxeko iragarki taulan ere argitaratua.

Ozaetan, 2019ko abenduaren 20an

O.E.
ALKATEA



IDAZKARIA